



13. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2005eko abenduaren 23an egindakoa.

TOKIA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko abenduaren hogeita hiruan.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño a.

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Aingeru Ezkerra Andueza jarduneko idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 10:00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldiko akta 12. 05-12-12koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 05/10 zk.dun kontu eta fakturen zerrenda

Tokiko Gobernu Batzarrak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 05/10



Zenbatekoa: EHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAIIKA EURO ETA BERROGEITA SEI CÉNTIMO (185.811,56)

3.- “Pablo-Enea goikaldeko sarbide berrien urbanizazioa 2. fasea” obraren 1. Ziurtagiria.

Mahai gainean geratu da gaia, obren exekuzio zuzena ez delako garaiz abalatu.

4.- “Pablo-Enea goikaldeko sarbide berrien urbanizazioa 2. fasea” 2. Ziurtagiria.

Mahai gainean geratu da gaia, obren exekuzio zuzena ez delako garaiz abalatu.

5.- “Pablo-Enea auzoko guneko batean urbanizazioa osatzeko obrak-Pasai San Pedron eskailera mekanikoak jartzea” obraren 1. Ziurtagiria – 1. Fasea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka.: 1

Obra: “Pablo-Enea auzoko guneko batean urbanizazioa osatzeko obrak-Pasai San Pedron eskailera mekanikoak jartzea” 1. Fasea.

Obra-zuzendariak: LKS

UTE, CENIA-CONSTRUCCIONES BIKANI-THYSSENKRUPP ELEVADORES enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA HAMAIIKA MILA ETA BOSTEHUN ETA BI EURO ETA LAUROGEITA BAT EURO (97.502,81 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-412/05 Disposamendutik ordainduko da.

6.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak. 05/4 zka. daraman proposamena.

Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2005eko abenduaren 20an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientearen agertzen diren onuradunen Laguntzak 184,00 eurokoak. Hau guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1720/05 Baimendutik ordainduko da.

7.- Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak. 05/4 zka. daraman proposamena.

Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2005eko abenduaren 20an egindako proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 1.680,47 eurokoak. Hau guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1733/05 Baimendutik ordainduko da.

8.- Dirulaguntzen banaketa: Sustapen programa herri mailan: Emakumea, prebentzioa eta gizarteratze, herri mailako elkarteak.

2005eko dirulaguntzetarako aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren eta 2005eko abenduaren 20ko Gizarte Zerbitzuaren Zinegotziaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Hurrengo dirulaguntzak ematea:

Partidaren izena: Sustapen programa herri mailan. Zk. 04-481-313-50-01.....13.000,00 €

Emakumeen Elkarteak/ Asociaciones de Mujeres

Lagun Artea	1.200 €
Azkuene	1.300 €
Itsaso Alde	700 €

GUZTIRA/TOTAL : 3.200 €

Prebenzio eta Gizarteratzeko Elkarteak/ Asociaciones de Prevención e Inserción

Fundación Izan-Norbera	1.600 €
Ekintza Da Salud	600 €
Adoa	650 €
Arrats	400 €
Aukera	400 €

GUZTIRA/ TOTAL 3.650 €

Herri Mailako Elkarteak/ Asociaciones de Ambito Local

Asfamogi	750 €
Aspargui	200 €
Ortzadar	1.000 €
Atcore	250 €
Homenaje a la Vejez Marino	250 €
Alcer Gipuzkoa	250 €
Ademgi	250 €



Atzegi 1.550 €
Donantes de sangre 1.650 €
GUZTIRA/TOTAL 6.150 €

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1721/05 Baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

9.- Dirulaguntzen banaketa: Etxe-Jubilatuak.

2005eko dirulaguntzetarako aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren eta 2005eko abenduaren 20ko Gizarte Zerbitzuaren Zinegotziaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ondoren aipatzen diren Etxe-Jubilatuei, "Zaharren biltokientzako udal dirulaguntza" 04.481.456.10.03 partidatik dirulaguntzak banatzea. Guztira 7.336,49 € aurkeztutako memorian oinarrituta.

- AITONEN ATERPEA	-Pasai Donibane-	2.700,00 €
- ZAHARREN BILTOKIA	-P.san Pedro-	550,00 €
- ZAHARREN BILTOKIA	-P.Antxo-	850,00 €
- HOGAR DEL JUBILADO	-Trintxerpe	3.000,00 €
- PREINCA ELKARTEA	-P:Antxo	236,49 €

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-1730/05 Baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

- Aktan konstarazteko hurrengo interbentzioak eman dira:
 - Alkate andreak Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkaritari galdetu dio zergatik diren ezberdinak emateko proposatu diren kantitateak.
 - Xabier Pombo jaunak adierazi du Antxoko Zaharren kasuan, "ekimen berritzaile" izenaz aurkeztu diren kontzeptuetatik, bi besterik ez zirela dirulaguntza jaso zezaketanak. Aurrez ere esan zitzaizen bestelako ekimenak aurkezteko.

- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak ondokoak erabaki ditu:

10.- “Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea” obraren 3. Ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka.: 3

Obra: “Antxo Iparra 01 C-12-A fasea-Blas de Lezo kalea Hiri Eremua berriz urbanizatzea”

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (Bide, ubide eta portuetako ingeniaria, Asmatu, S.L.) eta Juan Carlos Lapazarán j. (Arkitektoa).

ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAIIKA MILA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (31.039,16 euros).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-294/05 Disposamendutik ordainduko da.

11.- Obra-baimena: Iberdrola.

Juan Carlos Gil Sánchez jaunak, Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. enpresaren izenean, obra txikia egiteko lizentzia eskatu zuen 2005eko azaroaren 19an, goi tentsioko banaketa dorretxo baten ormigoizko oinarria kendu eta berria jartzeko, Pasaia Lizeora igotzen den errepideko eskuineko mendi-hegal batean, Erroteta esaten zaion udalerrian.

Dorretxoa terreno pribatuan dago, lurraren udal-erreserbaren mugen barruan, eta Arau Subsidiarioek honakoa xedatzen dute instalazioa dagoen lurretarako:

“(.)

D) ZONALDE LANDATARRAK

D.1 BABES BEREZIKO ZONALDE LANDATARRAK

10:00 INTERES NATURALISTIKO ETA PAISAJISTIKODUNAK

Zonalde landatarrak dira, Hirigunetik hurbil egotean eta dauzkaten ezaugarri fisikoak edukita, ekintza ororen eragina nabarmenki pairatuko luketenak hala ingurugiroan nola ikuspenean

Hauen egoerari hertsiki eustea eta beren osotasunean babestea proposatzen da

1-ERAIKUNTZARAKO ERREGIMEN OROKORRA.

Eraikuntza mota guztiak debekaturik gelditzen dira. Salbuespena zerbitzuen azpiegituretarako diren instalazioekin egingo da, baina orduan Udalaren baimen berezia beharko da beren eragina aztertu eta bestelako kokapenik hartzea ezinezkoa dutela baloratu ondoren.

Arau hauei haserako onarpena eman aurretik jada dauden eraikuntzak finkatuta uzten dira, bai eta horietan garatzen diren erabilera baimenduak ere.

Eraikuntza erantsi guztiak, txabolak eta itsatsiriko beste eraikin oro ordenazioz kanpo jotzen dira eraikuntza hauen tradiziozko irudia eta beren haserako tipologia aldarazten badute. Eraikuntza hauek Arau hauen 123. artikulua dioena eta lurzoru landatar arruntean (D.2.) ezartzen diren etxebizitzetarako aplikagarri diren xedapen arauemaile guztiak ohartemandakoa jarraitu beharko dute.

2- ERABILERA ARAU OROKORRAK

Erabilera nagusia: - *ESPAZIO LIBREAK eta aisiarakoak, bertako espazioa, fauna eta floraren zainketa, mantenimendu eta berreskurapena, eta berauen ustiapen kontrolatua.*

- *BASO-erabilera.*

Erabilera baimenduak: - *ZERBITZUEN AZPIEGITURETARAKO erabilerak ur-horniduraren modalitatean.*

- *NEKAZARITZA ETA ABELAZKUNTZAREN USTIAPENERAKO erabilerak, Arau hauek onartu aurretik jada leudekeen kasuetan soilik.*

- *Exxebizitza erabilera ustiategi horien osagarri gisa, Arau hauek onartu aurretik jada leudekeen kasuetan.*

- *EKIPAMENDU KOMUNITARIOko erabilera.*

Erabilera debekatuak: - *Gainontzeko guztiak
(.)”*

Udal-aparejadorea lizentzia ematearen kontra azaldu da, han egin baimendu daitezkeen azpiegitura bakarrak ura hornitzekoak baitira, ez energia elektrikoa hornitzekoak. Azaldu du, gainera, goi tentsioko kableak jartzeko, eta hirigintza-ordenantza berdinen arabera, etxebizitza eremuetatik urrunagoko lursailak erabiltzea dagoela baimenduta.

Lizentzia jasoko luketen lanen aurrekontua 3.000 eurokoa da, eta Eraikuntza eta Obretako Zergaren tarifa orokorra aplika dakioko.

Tokiko Gobernu Batzarra da lizentzia-eskaerei buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa, txosten erabakigarria aldekoa ez denean, eskumenak eskuordetzeko alkatetzaren Dekretuaren arabera (2003ko ekainaren 19koa) beraz, bertaratutako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Juan Carlos Gil Sánchez jaunari, Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. enpresaren izenean, ez ematea obra txikia egiteko lizentzia, goi tentsioko banaketa dorretxo baten ormigoizko oinarria kendu eta berria jartzeko, Pasaia Lizeora igotzen den errepideko eskuineko mendi-hegal batean, Erroteta esaten zaion udalerrian.

BIGARRENA.- Interesatuari udal-eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

12.- Obra-baimena: Blas de Lezo, 11.

HERNAGA GAS Y CALEFACCION Blas de Lezo, 11 zkko. Jabekideen izenean eraikinean gas-instalazioa eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- HERNAGA GAS Y CALEFACCION Blas de Lezo, 11 zkko. Jabekideen izenean eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Sailaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teilatura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (eskitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).

- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 9.605,90 eurokoa da eta horietatik 6.120 euro eraikinaren elementu erkideei dagokie.

13.- Obra-baimena: Euskadi Etorbidea, 33-35.

JOSE MANUEL MARTIS AMIGO Euskadi Etorbidea, 33-35 zkko. Jabekideen izenean eraikinean gas-instalazioa eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- JOSE MANUEL MARTIS AMIGO Euskadi Etorbidea, 33-35 zkko. Jabekideen izenean eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Sailaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuek balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzetzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teilatura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.

- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 11.971 eurokoa da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 11:00etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.